

Hizkuntza-ekologia paradigma: ekologiaren begirada hizkuntzen babeserako

Itsaso Olaizola Azurmendi

Kutxa Ekogunea

itsaso@ekogunea.net

Sarrera-data: 2015-03-30 | Onartze-data: 2015-06-15

Laburpena. Artikulu honen oinarria 2005ko otsailean Donostian izandako Hizkuntza-ekologia Lurraldea eta Hizkuntza II. Jardunaldietan (LUHI2) egindako aurkezpena da, bertan esan eta bildu ez ziren beste zenbait ideia eta erreferentzia gehigarriekin osatua. Espiralaren forma eta sinbologia hartzen duen eta sistema dinamiko eta metagarria irudikatu nahi duen ibilbidea proposatzen da aurkezpenean eta, bide honetan, 5 geldiuene egiten dira. Abiapuntu gisara, ekologiak hizkuntzekiko kezka zergatik duen azaltzen da. Bigarrenik, ekologiaren begirada hizkuntzetara, noiz, nola eta zein mailatan ematen den ikusten da; Hirugarrenik, Euskal Herrian dugun hizkuntza aniztasunaren diagnosi ekologikorako proposamena egiten da; Laugarren geltokian, ekologiaren begiradaren aplikagarritasun praktikora salto egiten da, ekologia zientziaren eta jasangarritasunaren printzipio, kontzeptu eta teknikak hizkuntzen arteko, eta hizkuntza hauen eta bere testuinguruen kudeaketara, ekarriaz. Jasangarritasunaren bidea euskararen (eta hizkuntza guztien) normalizazio helburura aplikatzen da. Azken geldiuenean, ondorioak biltzen dira. • **Hitz gakoak:** *ekosistema, hizkuntza-ekologia, aniztasuna, jasangarritasuna, kudeaketa, partaidetza.*


Abstract. This article is based on a presentation given in February 2005 at the 2nd Conference on Language Ecology, Territory and Language in Donostia-San Sebastian, and a number of additional ideas and references that were not said or included at the time have been incorporated into the article. This presentation proposes a route that has a spiral shape and symbology and which seeks to represent a dynamic, accumulative system, and so 5 stopping points are made. As the starting point, an explanation is provided as to why ecology is concerned about languages; secondly, when, how and on what levels the view of ecology towards languages emerges; thirdly, a proposal is made for an ecological diagnosis of the language diversity we have in the Basque Country; and fourthly, a leap is taken to the practical applicability of the ecological perspective by bringing the principles, concepts and techniques of the science of ecology and sustainability to management between languages and between these languages and their contexts. The way of sustainability is applied to the aim to normalise Basque (and all languages). And finally the conclusions are gathered together. • **Key words:** *ecosystem, language ecology, diversity, sustainability, management, participation.*

SARRERA

I
Hizkuntza-ekologia Lurraldea eta Hizkuntza II. Jardunaldiak (LUHI2), izenak erakusten duen gisara, 2014 urtean izandako lehen jardunaldi batzuen segida izan da. Lehen jardunaldi hauetan jaso ziren sei ondorioetatik bitan (5. eta 6. ondorioak) hizkuntzak babesteko egungo paradigmatan mugak daudela eta kontzientziazio beharra dagoela azpimarratu zen eta, ondorio hauei erantzuteko xedez, bi erronka jaso ziren: Batetik, paradigma berri baten lanketa bultzatzea eta bestetik, ingurumen kontzeptu eta tresnen aztertzea eta, ahal dela, baliatzea. Bi erronka hauen aurrean kokatzen da artikulu hau eta hizkuntza-ekologia paradigma oinarri hartuta, hizkuntzen babeserako kontzeptu eta tresna ekologikoak proposatzera dator.

1. ABIAPUNTUA: ZERGATIK HIZKUNTZEKIKO KEZKA EKOLOGIATIK?

I
Ekologiaren kezka hizkuntzetara muin muinetik dator, garapen jasangarriaren definizio beraren baitan dago. Izan ere, garapen jasangarriak hiru dimentsio ditu: ingurumena, gizartea eta ekonomia, eta, azpiko irudian ikusi daitezkeen moduan, hiru dimentsio hauek bat egiten duten eremua –espirala– izango da soilik, garapen eredu jasangarria. Gizarte edo dimentsio sozio-kulturalaren muinean kokatzen da hizkuntza.



Garapen eredu jasangarria – espiralaren eremua

Garapen jasangarriaren definizio ezagunena eta erabiliena Brutdland (1991) Txostenean dago eta honela dio: “Etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe, oraingo beharrei erantzuteko garapen eredu”. Definizio honetatik hiru ideia edo gogoeta azpimarratu daitezke:

- Garapen jasangarria ez da oreka egoera bat, baizik eta orekaren bilaketa prozesu dinamiko bat, espiralean irudikatu dudan eredu.

Garapen jasangarriaren definizio ezagunena. “Etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe, oraingo beharrei erantzuteko garapen eredu”.

**Ekologiaren
ikuspuntua
batetik,
hizkuntza
aniztasuna
aberastasuna da.**

Mundu mailako krisi globalari erantzuteko marko edo garapen eredua da: garapen ekonomikoa, munduko biztanleen ongizatea eta biosferaren babeserako modu kontrajarrian planteatzen (bat ala beste) ez dituen eredu bat, hiru dimentsio hauek elkar osagarriak (bat, bi eta hiru) diren eredua.

- “Beharrak” kontzeptua. Hainbat galdera orokor planteatu daitezke hemen: Zein dira behar hauek? Bizirauteko gizaki guztiok ditugun oinarritzko behar materialez gain, behar immaterialak ere?, unibertsalak dira behar guztiak? Edo herri, kultura edo/ eta belaunaldi bakoitzaren beharrak desberdinak dira? Ongizate, bake eta elkarbizitza beharrak? Hizkuntzetara etorrira: Elkarbizitzarako beharrari erantzuten al dio hizkuntzen arteko harreman ekologiko eta orekatuak? Jatorrizko eta berezko hizkuntzan bizitzea behar hauetako bat da?

Behar hauek zein diren hausnartu eta definitzeko “Bizi kalitatea” edo, ikuskera indigenean eta Latinamerikan erabiltzen den “bizimodu ona” (el buen vivir) kontzeptuak baliagarriak dira. Bizi kalitatearen baitan, ongizatea eta ingurune osasuntsuan bizitzea ulertzen diren bezala, gizakion jatorrizko hizkuntzan bizitzea, bizi kalitate kontzeptuaren baitan ulertu beharko litzateke. Eta, hiztunetik hizkuntzara etorrira, hizkuntzen garapen osoa –bizirauteaz haratago, modu jasangarrian garatzea-, garapen eredu jasangarriaren erdigunean kokatu (Azurmendi, M.-J. eta Olaizola, I. 2003).

- “Arriskuan jarri gabe” kontzeptua. Zein arrisku?, Ondorengo belaunaldiekiko (generazioen arteko ekitate printzipioa) hizkuntza transmisioa etetea?, ondare naturala eta kultura degradatzea?, Naturaren harrera gaitasuna gaunditzea?, hizkuntzen ordezkatzea eta galera, klima aldaketa, pobrezia, gerra? Jasangarritasunaren hiru dimentsioak aintzat hartu beharko dira, hemen ere.

1. TESIA zera da: Ezin dela garapen eredu jasangarriarik egon, ezin dela gizarte ongizateaz hitz egin, kultura eta hizkuntzen desagertze eta ordezkatzea bultzatzen bada, edo eta, era positiboan formulatua, munduko kultura eta hizkuntza aniztasuna bilatu eta kultura eta hizkuntzen arteko berdintasuna muinean ez badago. Hau da, ekologiaren ikuspuntu batetik, hizkuntza aniztasuna aberastasuna da.

Ingurumenari dagokionez, erraz ulertzen dugu adibide baten bidez. Hala, adituek egin dituzten aztarna ekologikoaren kalkuluak modu sinplean laburtuaz, Euskal Herriko biztanleak bizi garen bezala,

gainerako munduko biztanleak biziko balira, 2 ½ planeta edo, dagoeneko, 3 planeta beharko genituzke. Ez da jasangarria, ingurumenaren dimentsioari dagokionez.

Garapen eredu jasangarri desberdinak daude eta egon behar dute munduan, herri eta kultura bakoitzak bizitzeko modu desberdinak eta propioak dituztelako, bizi kalitatea ez dutelako kultura guztiek berdin definitzen. Eta lehen beharren inguruan aipatutako galderetako bati erantzunez, herri eta kultura bakoitzak bere garapen eredu eta prozesua definitzeko eskubidea eta beharra duen bezala, eredu hauek osagarriak izan behar dute, hau da, mundu honetako bizia arriskuan jarri gabe eta jasangarritasunaren hiru dimentsioen muga barruan jokatuaz. Hizkuntzari dagokionez eta eredu jasangarri batez ari bagara, munduko jatorrizko eta berezko hizkuntzak modu duinean garatzea (edo hiltzea), garapen ereduaren eta bizi kalitatearen adierazle da.

Gainera, gero eta konplexuagoa, desorekatuagoa eta homogeenagoa bilakatzen ari den mundu globalizatuan, garapen jasangarriaren eta ekologiaren ikuspuntutik, hizkuntza aniztasuna aberastasuna dela ulertzeaz gain, gizakiaren bizirauteko faktore garrantzitsua ere izan daiteke. Hala, 2. TESIA hau litzateke: bizi garen mundu konplexu eta aldakor honetan, hizkuntza aniztasunak eskaintzen duen mundu ikuskera desberdinen osagarritasuna beharrezko izango zaigu, gizaki bezala erronka berriei aurre egin eta bizirauteko. Beraz, hizkuntza aniztasuna, biziraupenerako giltzarri ere bada. Adituren batek esana duena aintzat hartuaz, pentsamendu bakarra garunaren monolaborantza da, gizarte gaixotasuna. Hizkuntza bakoitzak, mundu ikuskera bat, mundua ulertu, interpretatu eta sortzeko ikuskera propio bat ematen dio gizakiari. J.M. Odriozolak (2007) azaldu izan duen gisara, gizartearen antolamendu guztia dago hizkuntzaren jardunak zeharkatua eta ezaugarritua. Hala, hizkuntzaren funtzioa ez da soilik pentsatu eta sortua dena komunikatzea, sortua den mundua kulturala eta linguistikoa bai da jada eta, ondorioz, gizarte eredu hizkuntzaren bitartekaritza datza.

2. EKOLOGIAREN BEGIRADA HIZKUNTZETARA: NOIZ, NOLA ETA ZEIN DIMENTSIOTAN?

I

2.1 Noiz?

Ekologiaren ikuspegia hizkuntzetara ekarri zuen lehena, Einar Haugen Estatubatuarra izan omen zen, 1972ean. Laurogeigarren hamarkadan beste aditu batzuk ere heldu zioten kontzeptuari, tartean, William

Munduko jatorrizko eta berezko hizkuntzak modu duinean garatzea (edo hiltzea), garapen ereduaren eta bizi kalitatearen adierazle da.

Hizkuntza aniztasuna, biziraupenerako giltzarri ere bada. Hizkuntza bakoitzak, mundu ikuskera bat, mundua ulertu, interpretatu eta sortzeko ikuskera propio bat ematen dio gizakiari.

Aditu batzuk, tartean Jon Sarasua (2013) eta Xabier Erizek, “etika”ri egiten diote erreferentzia, eta hizkuntza-ekologiaren arlo hau lehentasunez-kotzat hartzen dute biologia eta jasangarritasunarekin lehentasunezko loturak eta paralelismoak egiteko.

Mackey (1976) Quebectarrak eta, gurean, Euskal Herrira hizkuntza-ekologia kontzeptua lehen aldiz ekarri zuen José María Sánchez Carrión “Txepetx” (1985,1987), nahiz eta dagoeneko 1960. hamarkadatik, zenbat aurrekari egon. Laurogeita hamargarren hamarkadan kontzeptualki aipatua izan zen hizkuntza-ekologia han eta hemen eta, esan daiteke, 2010 urtearen bueltan hasi zela hizkuntza-ekologia paradigma berri bezala aztertzen (BAT *Soziolinguistika Aldizkaria* 65, 75(2), 81(4), 86, 90(1) eta 91(2)) eta proposatzen Euskal Herriko soziolinguistika adituen eta erakunde desberdinen artean, besteak beste: SLK eta BAT *Soziolinguistika Aldizkaria*, UNESCO-Katedra, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, UEMA, Garabide, Kontseilua, Topagunea, Eusko Ikaskuntza, UEU, BIZI! eta Kutxa Ekogunea.

Bukatzeko esan, begirada ekologiko sistemiko hau akademiatik hizkuntzetara ekartzea nahiko berria izanda ere, intuizioz behintzat erabilia izan dela euskararen eragileen artean. Jon Sarasuak (2007) iradokitzen duenez, ez da kasualitatea ekologiaren etika euskalgintzaren munduan gertatu izana.

2.2 Nola eta zein dimentsiotan?

Hizkuntza-ekologiak hizkuntzak ekologiaren ikuspuntutik aztertzen ditu, eta aplikazioari dagokionez, hizkuntza-ekologia hiru dimentsio nagusitan da aplikagarria, hizkuntzetara ekarrita ere (begirada, zientzia eta ekintza).

- **BEGIRADA.** Begirada ekologikoa holistikoa, ekosistemikoa eta dinamikoa da. Elkar-eragin konplexuak hartzen ditu aintzat eta, artikulu honen abiapuntuan esan bezala, aniztasuna (bioaniztasuna eta baita kultura eta hizkuntza aniztasuna ere) aberastasun gisara, eta bizirauteko giltzarri bezala, ulertzen dituen bizi ikuskera edo begirada da. Aditu batzuk, tartean Jon Sarasua (2013) eta Xabier Erizek, “etika”ri egiten diote erreferentzia, eta hizkuntza-ekologiaren arlo hau lehentasunez-kotzat hartzen dute biologia eta jasangarritasunarekin lehentasunezko loturak eta paralelismoak egiteko. Begirada edo etika honek, natura eta bizidunekiko begirunea du abiapuntutzat eta kultura eta hizkuntzen arteko elkarbizitza eta errespeturako markoa ezartzeko, ikuspuntu dikotomikoetatik aldendu eta hizkuntza hedatzaile eta meneratuen botere eta desoreka egoerak berdintzeko.
- **ZIENTZIA.** Garrantzitsua da gogora ekartzea, ekologia zientzia, bere baitan, diziplinartekoa dela. Izan ere, ekologia, biologiatik, geografiatik, estatistikatik, ekonomiatik... elikatzen den zientzia da

eta, gainera, gizarte zientziekin batera, azterketa eremu desberdinetan erabiltzen da, hala nola: ekologia politikoa, gizakion ekologia (*human ecology*), ekologia soziologikoa (*social ecology*); justizia ekologia (*environmental justice*), ekofeminismoa; poblazio ekologia (*population ecology*) ekologia ekonomikoa (ecological economics), kode irekiaren ekologia (*open source ecology*)... Bide berean, eta hizkuntzetara etorruta, hizkuntza-ekologia diziplina zientifikoa.

Ekologiak bizidunek bere ingurunearekin duten harremana eta elkar eragina aztertzen duen legez, hizkuntza-ekologiak, hizkuntzen arteko harremanak aztertzeaz gain, hizkuntza hauek bere testuinguruarekin duten harremana aztertzen du, bi norabideetan. Hala, hizkuntzak ingurunean duen eragina eta, alderantziz ere, inguruneak hizkuntzan duen eragina. Aurrerago, artikuluko honen 4. atalean biltzen dira ekologiaren begiradapeko hizkuntza kudeaketa ekologikoaren ezaugarriak.

- EKINTZA. Ikuspuntu ekologikoa interbentzionista eta ekintzailea da, orekaren bilaketa konstantea du hizpide. Hizkuntzetara ekarrita, munduko hizkuntzen egoera globalki eta kasuan kasu aztertu; hizkuntzen ordezkatze eta desagertze arrazoiak aztertu; arrisku mailaren araberrako sailkapenak egin interesgarria UNESCOren Arriskuan dauden Hizkuntzen Atlasan¹; oreka lortzeko eta galerari aurre egiteko hizkuntza menperatu eta gutxiagotuekiko diagnosiaren araberrako babes neurri orekatzaileak hartu; hartutako neurrien egokitasuna aztertu eta adierazle bidez neurtu; eta interbentzio emaitzen araberrako neurri orekatzaile berriak eta eraginkorrak proposatu.

3. DIAGNOSIA ETA KRISI EKOLOGIKOA: HIZKUNTZA ABERASTASUNA ETA KRISIA EUSKARAREN LURRALDEAN. ABERATSAK GARA? HIZKUNTZA GALERA ARRISKUA DUGU?

I
Hizkuntzen diagnostia eta krisia ezin da munduko krisi globaletik kanpo kokatu. Beraz, ezaguna den egungo krisi ekonomiko-finantzieroaz gain, ezberdintasun sozial gero eta handiagoen krisia, krisi energetikoa eta klimatikoa, bioaniztasun krisia, elikadura krisian murgilduta gauden honetan, hizkuntzen krisia ere badago. Beraz, egungo garapen ereduaren mugak eta aldaketa beharrak garapen eredu jasangarrietara bideratzerakoak, hizkuntzaren gaia ere erdigunean kokatzea dakar.

Ekologiak bizidunek bere ingurunearekin duten harremana eta elkar eragina aztertzen duen legez, hizkuntza-ekologiak, hizkuntzen arteko harremanak aztertzeaz gain, hizkuntza hauek bere testuinguruarekin duten harremana aztertzen du, bi norabideetan.

Ikuspuntu ekologikoa interbentzionista eta ekintzailea da, orekaren bilaketa konstantea du hizpide.

**Eguno garapen
ereduaren mugak
eta aldaketa
beharrak
garapen eredu
jasangarrietara
bideratzerakoak,
hizkuntzaren
gaia ere
erdigunean
kokatzea dakar.**

**Euskal Herrira
etorrita
hizkuntza
aberastasun
handia dago XXI.
mende honetan:**

Munduko hizkuntzen diagnosi ekologikora etorrira, 6.500 hizkuntza omen daude egun munduan eta, ekologiaren ikuspuntu batetik, denak balio berdina izan arren, ez daude guztiak egoera berdinean. Bi datu azpimarratzearren: 1) KUANTITATIBOKI soilik begiratuta, munduko biztanleriaren %97ak, gutxi gora behera, munduko hizkuntzen % 4 soilik hitz egiten du eta, alderantziz, munduko hizkuntzen %96a biztanleriaren %3ak soilik hitz egiten du. 2) KUALITATIBOKI, munduan, gaur egun, 200 Estatu inguru daude, eta hauetan, “Estatu bat = hizkuntza bat” nagusitu den politika izanik, hizkuntza gehienak ez ofizialak eta meneratuak dira. Horrela, munduko Hizkuntza aniztasun hau galtzen ari da, eta galera erritmoa eta arriskua handia da. Adituen arabera, hamabost egunero hizkuntza bat desagertzen ari da, munduko hizkuntzen desagertze faktoreak unibertsalak dira, eta aurreikuspena, XXI. mende honetan bertan munduko hizkuntzen erdiak desagertuko direla da.

Euskal Herrira etorrita hizkuntza aberastasun handia dago XXI. mende honetan:

- Batetik, Euskal Herriko berezko eta jatorrizko hizkuntza den, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen artean sailkatua den, eta bizitzeko lurralde mugatu eta bakarra Euskal Herria duen, euskara. EUS.
- Bestetik, euskararekin ukipen egoeran bizi diren bi hizkuntza nagusi eta hedatzaileak, espainiera Hegoaldean eta frantsesa Iparraldean. ES eta FR
- Hirugarrenik, nazioarteko harreman hizkuntza izatera iritsi den eta, gero eta funtzio gehiago eta eremu gehiagotan (norbanakoa, familia, eskola, aisialdia eta kalea, lana...), erabiltzen den, ingelesa. EN
- Laugarrenik, sarri ahazten ditugun, 110etik gora hizkuntza etorri berriak, euskararen lurraldean bizi direnak, mundu-ikuskera berezitua dutenak, kategoria zabala eta anitza (=aberatsa). (X. Aierdi eta B. Uranga, (Ed.), 2007).
- Azkenik, eremu ia guztietan bizi den, eta euskara ere presente dagoen, ekosistema digitala². @ #

Diagnosi honetatik abiatuta, nola kudeatzen da hizkuntza aniztasuna mundu mailan eta Euskal Herrian, ikuspuntu ekologikotik abiatuta? Zein da hizkuntzei eta euskarari eman beharreko “tornua” ekologikoa? Galdera konplexu eta deserosotzat hartu izan da, baina, ekologiaren

ikuspuntutik, eta euskarari dagokionez, erantzuna argia da: hizkuntza aniztasuna eta eleaniztasunaren aldeko politika eta neurrien erdigunean egon behar da tokian tokiko jatorrizko eta berezko hizkuntza gutxiagotuei garapen aukerak ematea eta, horretarako, neurri orekatzaileak hartzea. Euskal Herrira etorrita, euskara da bertako hizkuntza meneratua eta gutxiagotua, bertan hil edo biziko dena eta, beraz, euskararen aldeko neurri orekatzaileak hartzea da ekologikoa. Euskal Herriko zein mundu mailako hizkuntza aniztasunaren aldeko ekarpen handiena da gurean, euskara indarberritzea eta hizkuntza komuna egitea.

4. EKOLOGIAREN BEGIRADAPEKO HIZKUNTZA KUDEAKETA EKOLOGIKOA. JASANGARRITASUNAREN PRINTZIPIO, KONTZEPTU ETA TEKNIKEN ERABILERA

Ibilbidearen 4. geldialdi honetan, ekologiaren begirada honek, zein erabilera praktiko izan dezakeen proposatzen da. Ingurumena babesteko printzipio, kontzeptu eta teknikak hizkuntzen arteko, eta hizkuntza hauen eta bere testuinguruen arteko, kudeaketara ekarriko dira eta ekologiaren begirada eta diagnosiak euskararen lurraldera ekartzeak zein aukera (eta arrisku) eskaintzen dituen iradokitzen da.

Biologiaren eta hizkuntzen arteko paralelismo edo analogia ariketa hau egiteak dituen arriskuez ere gogoeta sakonak eginak dira eta, aurrera jarraitu baino lehen, aipatzea eskatzen du. Muinean, natur zientzien eta gizarte zientzien arteko desberdintasunetan oinarritzen da kezka, gizakiaren ezaugarri berezko eta bereziena hizkuntza izanik. Ikuspegi ekologikoa eta ingurumenarekiko analogiak gaizki ulertzen badira, ikuspuntu darwinista hartu eta hizkuntzen galera prozesu naturala dela pentsatzeko ideia faltsuan erortzeko arriskua dago. Izan ere, soziolinguistika zientzian argi dagoen gaia da hizkuntzak ez direla modu naturalean hiltzen eta galera arrazoien artean, bakarra ere ez dela, hizkuntzaren baitako ezaugarrietan oinarritzen. Ez dago hizkuntza aberatsa edo hoberik, guztiek dute balio bera eta baita garapenerako potentzial berdina, uzten bazaie: Funtzioak bereganatzen badituzte, Corpus juridiko egokia eta prestigio soziala badute, hiztun kopuru gutxienekoa eta kalitatezkoa badute eta hedadura demografikoa badute.

4.1 Ekologiaren PRINTZIPIOAK hizkuntzetara

Printzipio zerrenda irekia da jarraian datorrena eta erabilgarrienak gerta daitezkeenak bildu dira¹. Zuzenbidearen begiradatik, printzipioek legeak eta arauak interpretatzeko eta kudeaketa praktiken norabidea

Ikuspegi ekologikoa eta ingurumenarekiko analogiak gaizki ulertzen badira, ikuspuntu darwinista hartu eta hizkuntzen galera prozesu naturala dela pentsatzeko ideia faltsuan erortzeko arriskua dago.

finkatzeko balio dute. Aitortzen zaien baino garrantzi handiagoa izaten dute eta, horregatik, esku-hartze edo interbentzio bidea zehazten denean (adibidez etxebizitza promozio handi bat herri euskaldun txiki batean), printzipio hauek aintzat hartuak izan direla konfirmatzea baliagarria izaten da (*checklist* modukoa).

- Pentsatu globalki eta tokian ekin, eta baita alderantziz ere. Euskara munduko hizkuntzen errealitate eta egoeran kokatu eta euskara bultzatzeko tokiko neurriak hartu, eta, alderantziz, tokiko errealitate zehatza ezagutu eta pentsatu, mundu mailan eraginak eta neurriak bultzatuaz, tokiko dimentsioaren balio unibertuala.
- Berdintasun printzipioa. Hizkuntza guztiei, garapenerako berdintasun aukerak eman. Jatorrizko eta berezko hizkuntzak babestu, hizkuntza guztiak errespetatu, ikasi berriak, eman hizkuntzak elkarri.
- Prebentzio printzipioa. Hasiera hasieratik, edozein politika, proiektu, ekimen dela eta, hizkuntza erdigunean kokatu, arazoan iturrietara joatea lehenetsi, eragin kaltegarriak ekidin eta, ezin denean soilik, neurri orekatzaileak hartu.
- Atzeraezintasun printzipioa. Hizkuntzengan izaten diren eragin kaltegarriak buelta ematea zein zaila den jakina da eta, adibidez, argiena, 60. hamarkadan euskararen gainbehera prozesua iraultzeko biziberritze prozesua zein gogorra izan den gogoan izatea da. Politika edo proiektu jakin batek ingurumenean edo euskararengan sortuko dituen kalteak atzera buelta nekeza izango badute, politika edo proiektu hori zalantzan jarri beharra eskatzen du.
- Zuhurtasun-printzipioa. Hizkuntza gutxiagotu batentzako eragin kaltegarri larria edo atzeraezina sortzeko arriskua dagoen kasuetan, informazio edo ziurtasun zientifikorik ez izan arren, badaezpada zuhurtziaz jokatzeko eskatzen du (probaren kargaren inbertsioa). Adibidez, Europar Batasunean, orain arte, transgenikoak ez baimentzeko luzamendua, kaltegarriak ez direla frogatu arte.
- Subsidiaritate printzipioa. Bi modu osagarrietan interpretatu daiteke printzipio hau hizkuntzetara etorrira. Batetik, jendartearen parte hartze aukerak errazteko, jendartetik gertuen dagoen interbentzio edo administrazio maila lehenestea. Eta bestetik, erabiliena, jatorrizko hizkuntzan egin daitekeen guztia hizkuntza horretan egitea eta, beraz, jatorrizko hizkuntzari funtzioak ematea. Hori

jadanik egin ezin den kasuetan soilik pasatzen da beste hizkuntzak erabiltzera.

- **Ardura partekatuak baina berezituak printzipioa.** Ingurumen eta hizkuntza eskubideak izateak berekin dakar ardura hartu beharra. Ingurumena eta hizkuntza zaintzeko ardura guztiona da (“kutsatzen duenak ordaindu egiten du” printzipioarekin eta ingurumen eta gizartearen kontrako kanpo-efektuak barneratzeko betebeharrarekin loturan), baina, era berean, jendartearen, enpresen eta gobernuen ardurak ez dira berdinak eta maila berekoak.
- **Progresibitate printzipioa.** Hizkuntza eta ingurumena babesteko helburuak denboran modu progresiboan planteatu beharra, ekimenak eta aktibitateak helburu hauetara egokitu eta sentsibilizatzeko aukera emanaz. Printzipio hau garrantzitsua da, hizkuntza, gizarte kohesiorako giltzarri bezala ulertzen badugu eta, adibidez, arnasmuneen hedapen mailakaturak egiteko.
- **Nazioarteko Kooperazio eta Solidaritate printzipioak.** Estatuaren eta herrien arteko kooperazioa eta fede ona eskatzen du garapen jasagarriak ere nazioarteko zuzenbidean. Adibideak jartzearren, Klima Aldaketarako Protokoloak, Milurteko Giza Garapen helburuak zehazterakoan.

4.2 Ekologia KONTZEPTUAK hizkuntzetara

Hemen ere kontzeptu batzuk aipatu eta labur aztertuko dira, baina, badira noski, beste hainbeste kontzeptu ere, baliagarriak gerta daitezkeenak hizkuntzen aferan ere, hala nola, galga ekologikoa, harrera gaitasuna, erresilientzia edo, dagoeneko artikulatu honetan azpimarratu den, orekaren bilaketa konstantea .

Kontzeptu ekologikoen atal honetan, lau kontzeptu aztertuko dira: 1) azterketa ekosistemikoa; 2) kudeaketaren azterketa mailak eta eskalak; 3) arnasmuneak eta korridoreak; eta 4) jasagarritasunaren muinean dagoen partaidetza.

4.2.1 AZTERKETA EKOSISTEMIKOA egiten du ekologiaren zientziak

Azterketa ekosistemiko batek eremuen arteko loturak egingo dituen ekimenak gauzatzea bilatuko du. Hezkuntzako adibide pare bat jartze-

Lurralde antolamenduak eta hirigintzak euskararengan dituzten eraginak handiak izanik ere, ez dira aintzat hartu ere egiten. Beraz, euskararen testuinguruan, soilik hizkuntza politika eta planak izatetik haratago, ikuspuntu ekosistemikoak, beste arloetako politketan eta araudietan, zeharka, hizkuntza ere barneratzeko erronka dago.

arren: 1) familia, eskola eta eremu hurbila zeharkatu eta hezkuntza komunitatearen erdigunean haurrak jartzen dituen “Umeen aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen” ekimena eta 2) Kutxa Ekoguneak Gipuzkoa eta Euskal Herriko diziplina desberdinetako gazteak jasangarritasunean eta lidergoan heztea, aktibatzea eta kolektiboki antolatzea helburu duen Gazte Ekoliderrak –www.ekoliderrak.net – ekimena.³

Egun ordea, ikuspuntu ekosistemikoa orokortzetik urrun gaude. Jardu-naldietan aztertu den bezala, lurralde antolamenduak eta hirigintzak euskararengan dituzten eraginak handiak izanik ere, ez dira aintzat hartu ere egiten. Beraz, euskararen testuinguruan, soilik hizkuntza politika eta planak izatetik haratago, ikuspuntu ekosistemikoak, beste arloetako politketan eta araudietan, zeharka, hizkuntza ere barneratzeko erronka dago.

4.2.2 KUDEAKETA ekologikoaren azterketa MAILAK eta ESKALAK. Ekologiaren kudeaketa mailak eta eskalak baliagarriak dira, baita ere, hizkuntzen kudeaketarako.

Kudeaketa MAILAK. Ekologian elkar eraginak hiru maila nagusi desberdinetan aztertzen dira, hala nola, eta modu sinplifikatuan: indibiduoak; taldea (espezia); eta ekosistema. Hizkuntza-ekologiak ere, hiru plano nagusi bereizten ditu: hiztuna (norbanakoa), taldea (hiztun komunitatea eta hizkuntza-komunitatea), eta hizkuntza hori bizi den testuinguru edo ekosistema geografiko eta sozio-funtzionalak.

Azterketa maila hauek aintzat hartzeak, besteak beste, “hizkuntza eta hiztuna” plano binariotik, “hiztuna, hizkuntza-komunitatea eta hizkuntza” planoetara pasatzea dakar.

Ekologia	Ekosistema Biosfera	Poblazioa, Komunitatea (espezia)	Indibiduoak
Hizkuntza	Ekosistema Testuinguru geografiko eta sozio- funtzionalak	Hiztun Komunitatea eta Hizkuntza- Komunitatea	Norbanakoa (hiztuna)

Lehentasunezko kudeaketa eta interbentziorako ESKALA. “Pentsatu globalki eta tokian ekin” printzipioak, eta baita subsidiaritate printzipioak ere, ikuspuntu globala izanda ere, ekintza bide lokalak hartzea eskatzen

du. Baina, zein da tokian tokiko eskala hau Euskal Herri mailan, Euskal Herria bera eta gero?

Ekologian eta ingurumenaren kudeaketan, gurean, tokiko eskala egokia eskualdea edo bailara izan daitekeela iradoki izan du Joseba Azkarraga Etxegibelek (2010), nazioarteko *transition towns* mugimenduaren karira. *Transition towns* mugimenduak egungo krisi energetikoari erantzunez, eta biosferaren gaitasun eta muga naturalen barruan, alternatiba lokalak abian jartzen ditu ekimen txiki eta lokalen bidez. Egungo parametro sistemiko eta garapen eredutik kanpo, paradigma ekologikoa proposatzen du maila lokalean, erresilientzia komunitarioan eta autosufizientzia lokalean oinarrituta, trantsizio prozesu ordenatu eta eraikitzailean antolatuta.

Gurean, eskualde edo bailara eskala, ingurumenaren kudeaketarako egokia dela dirudi, elikadura, energia, eta baita hondakinen eta garraioaren kudeaketarako. Euskal Herriko udalerrri asko txikiak dira kudeaketa hau bakarrik egiteko eta, kasu batzuetan jada, badaude, eskala honetan diharduten erakundeak, hala nola, eskualdetako garapen agentziak edo hondakin eta uren kudeaketarako mankomunitateak. Euskarari dagokionez ere, egokia izan daiteke eskualdearen eskala, nazio eta herrien eskalarekin batera -kooperazio eta subsidiaritate printzipioan oinarrituta-, ekintza ekologikorako, horrela, ingurumena-hizkuntza batera kudeatzeaz gain, euskarazko kultura eta euskararako baliabideen optimizazio ekonomiko eta soziala bultzatzeko. Badira adibide batzuk, euskarazko hedabideei dagokienez, Berria egunkaria maila nazionalean, eta Hitzak edo tokiko komunikabideak eskualde mailan; edo eta, eskualde mailako Batzordeekin, Oarsoaldeko Euskara Batzordea kasu.

Hau esanda, kasuan kasu aztertu eta zehaztu beharko da eskala eraginkorra zein den. Izan ere, bailarak eta eskualde administratiboek ez dute beti bat egiten eta eskualde identitatea ere ez da guztietan izaten.

4.2.3 ARNASGUNEAK eta KORRIDOREAK

Testuinguru egokiak kudeatu, hedatu, lotu eta sortzea da ekologiaren kontzeptu interesgarrietako bat. Hizkuntza arlora zuzenean zuzenduriko neurri eta ekintzak baino, esku hartzeak arnasmune edo testuinguru berrien sorkuntzan jartzeko aukera baliatzea. Luze hitz egin da arnasmune geografikoen inguruan Jardunaldietan eta, artikulua honetan, ekologia ikuspuntutik proposamen batzuk egitera noa:

Euskarari dagokionez ere, egokia izan daiteke eskualdearen eskala, nazio eta herrien eskalarekin batera-kooperazio eta subsidiaritate printzipioan oinarrituta-, ekintza ekologikorako, horrela, ingurumena-hizkuntza batera kudeatzeaz gain, euskarazko kultura eta euskararako baliabideen optimizazio ekonomiko eta soziala bultzatzeko.

- Arnasgune geografikoak duten garrantzia handia da euskararentzat, testuinguru euskaldunak eragin positiboa dutelako hizkuntzaren erabileran. Gehiengo nagusia (%70tik gorakoa) euskalduna denean, euskara natural sentitzen eta erabiltzen da, eta euskaldunak ez du hautu eta esfortzu kontziente bat egin beharrik euskaraz aritzeko, ez du bertan estres linguistikorik sentitzen. Gainera, euskaldunak euskaraz erraz egiten duten legez, euskaraz ez dakitenei euskara ikasteko pausua ere errazago gertatzen zaie arnasguneetan, “beharrezko” sentitzen delako. Azpimarratuko nuke baita euskaraz naturalki bizitzeak hizkuntza gaitasun handia (batez ere ez formala) izatea errazten duela, eta hizkuntza ez formala mantendu, sortu eta baita estandarrera ekartzeko aukerak ere handiagoak direla arnasguneetan.
- Soziolinguistika Klusterrak LUHI2 jardunaldietan emandako azken datuen arabera, ordea, arnasgune geografikoen egoera okertzen ari da. Ingurunearekin gertatzen den bezala, Amazonia bezalako gune aberatsak oso hauskorrak dira, eta herri hauei eragiten dieten lurralde antolamendu eta garraio proiektu eta planen Eragin Linguistikoak Ebaluatzea (ELE teknika) aurrerapauso garrantzitsua gerta daiteke, hala nola, herri hauetan etxebizitza promozio berri bat egiterakoan.
- Arnasgune izendapenak ez dakar berarekin ondorio juridikorik. Arnasgune izendapena “sinbolikoa” da zentzu honetan, horrek izan dezakeen balioa gutxietsi gabe. Aldiz, naturgune bat parke natural izendatzen denean, izendapenarekin batera, natur espazioen erabilera zehatzak zehazten dira eta izendapen kategoriaren araberrako erabilerak mailatzen dira, planifikazio teknikaren bidez.
- Arnasgune geografikoak mailakatzea interesgarria izan daiteke. Gaur egun, ez dago mailaketarik, hau da, arnasgunea da (%70tik gora euskalduna), edo ez da. Ikuspuntu ekologiko batetik, interesgarria litzateke ibilbide edo prozesua diseinatzea eta, SLKak egindako ikerketak egiten duen bezala, sailkapen mailakatua egitea eta mailakatze horren araberrako babes maila 3 edo 4 mailatan graduatu eta mailaz igotzeko ibilbide bat proposatzea, hizkuntza ziurtagiriekin egiten den bezala. Adibidez,

EUSKALDUN HIZTUN EHUNENKO ERLATIBOAK			
%30 + gehiago	%31 - %60	%61 - %80	%81 - %100

- Arnasgune geografikoen eta bizi-kalitatearen arteko lotura azpimarratu beharko litzateke. Arnasguneetan bizi diren euskaldunak, testuinguru euskaldunean bizitzeko esperientzia, bizi kalitatearekin lotzen badute, kontzientziatik ekintza ekologikora pausoa emateko aukera handiagotzen da, bai arnasguneetan bertan, eta baita arnasgunetik kanpo ari direnean ere. Ez dira gutxi euskaraz bizi ahal izateko arnasguneetara bizitzera joan direnak. Bizi-kalitatearekin lotura egin eta kontzientzia maila handitze honek, arnasguneak babestu eta “zabaltzeko” garrantzitsua gerta daiteke.
- Arnasgune geografikoak bezain garrantzitsuak dira arnasgune sozio-funtzionalak, biztanleriaren gehiengo erlatiboa euskalduna ez diren herri eta hirietan, euskararen lurralde zabalenean, berebiziko garrantzia dutenak. Adibide desberdinak ditugu. Hezkuntza eremua: D ereduko eskolak eta hauetako euskara batzorde edo programak; goi mailako hezkuntzan, UEU edo HUHEZI Fakultateak; euskaltegiak; administrazioetan, UEMA edo Euskara teknikariek eta agintari politikoek osatzen duten taldea; aisialdia eta kultura eremuetan Irrien Lagunak, Kafe Antzokiak, euskarazko azoka, kultur zirkuitu eta musika jaialdiak; Komunikabideetan, euskarazko hedabideak; Euskara eremu digitalean; Enpresan, Bikain eta Bai Euskarari ziurtagiria dutenak; Euskoa —euskal moneta sozial eta euskalduna— onartzen duten saltokiak, etab.
- Arnasguneen artean loturak, sareak sortu beharko lirateke arnasgune geografikoen eta baita arnasgune sozio-funtzionalen artean ere. Ekologiako, korridore ekologikoen Kontzeptua bera, edo eta, Natura 2000 Sarearen adibidea, ekarri daitezke hizkuntzetara ere. Interesgarria gerta daiteke Euskadiko Korridore Ekologikoen Sarea eredutzat hartuta, Arnasguneen Korridore Sarea abiatzea edo eskualde mailako korridoreak bultzatzea. Bide honetan interesgarriak dira, adibidez, arnasguneen arteko sareak eta pasabideak, arnasguneen mapak eta geolokalizazioak (Mintzatu adibidez) eta euskararen bigorriak bezalako jardunbide eta ekintzak.

Arnasguneen artean loturak, sareak sortu beharko lirateke arnasgune geografikoen eta baita arnasgune sozio-funtzionalen artean ere.

4.2.4. PARTAIDETZA, garapen eredu jasangarriaren muinean.

Garapen jasangarria prozesua den heinean, eta ez helburu, parte hartzean eraikitzen da. Partaidetza gure etorkizun komuna, elkarrekin eta elkarbizitzan eraikitzeko medio eraginkorra da. Parte hartzea eta kontsentsuari dagokionez, bi ideia jarraian:

Herritarren parte hartzerako bide berriak, horizontalagoak, zuzenagoak eta konpartituagoak ari dira bultzatzen interes publikorako diren gaien inguruan eta, hizkuntzaren gaian ere, aukera berriak irekitzen dira.

- Hizkuntzaz haratago, kontsentsuak, indar-metaketa eta gutxieneko diskurtso konpartituak eraikitzeke eraginkorra da hizkuntza-ekologiaren begirada. Kontsentsua ez da soilik hizkuntzaren aferaren baitakoak izan behar. Nola batuko ditugu baita ere beste kezka batzuk dituztenak (ekologia, tokiko ekonomia, justizia soziala, feminismoa, homofobiaren kontrako borroka...) hizkuntzekiko gure kezka? Hizkuntzekiko kezka ditugunak beste kezka hauek ere gure egiteak lagunduko al luke? Garapen eredu alternatiboen diskurtso eta praktiken osagarritasuna bilatu behar du garapen eredu jasangarriak. Homogenizazio joerari erantzungo dioten beste kolektibo eta eragile hauekin interes komunak adostu (aniztasunaren defentsa), eta gutxieneko diskurtsoa eraikitzeke (Aniztasunaren diskurtsoa + kudeaketa sustatu beharra), baliagarria da hizkuntza-ekologia: 1) Hizkuntza etorri berriak hitz egiten dituzten pertsona eta taldeak (adib. Harrera Planak, hizkuntza etorri berriak eskoletan balioan jarriaz (Lingolang), eta munduko beste hizkuntza gutxiagotuetako hiztun eta komunitateak. (Garabide); 2) Talde feministak (pertsonala politikoa da); 3) Ingurumenaren babesa eta tokiko ekonomia sustatzen duten talde eta ekimenak (Slow mugimendua, Euskoa, Kontsumo taldeak, saltoki ekologikoen gidak...), eta abar. Izan ere, Euskal Herriko garapen eredia Feminista/Homofobiaren kontrakoa/Ekologista/Euskalduna... izango da, edo ez da izango. Indar metaketa honetan, garrantzi handia izango du publiko-xede bakoitzaren behar eta motibazioei egokitutako mezuak indartzea.
- Herritarren parte hartzerako bide berriak, horizontalagoak, zuzenagoak eta konpartituagoak ari dira bultzatzen interes publikorako diren gaien inguruan eta, hizkuntzaren gaian ere, aukera berriak irekitzen dira. Adibidez:

1) Euskal Herriko indarguneetako bat kapital soziala eta hizkuntza-komunitatearen erresilientzia dira eta beraz, herritarren parte hartzea eta autoeraketarako gaitasunak garrantzitsua izaten jarraituko du.

2) Herritarrek eta gizarte zibilak ingurumen gaietan dituen parte-hartze bideak inspiratzaileak dira hizkuntzen gaietarako ere (Olaizola, I. eta Alvarez de Eulate, N. (2003), eta hizkuntzen gaietarako kokudeaketa publiko-pribaturako aukera interesgarri gero eta gehiago ere badira.

3) Partaidetza prozesuak hizkuntzen arloan erabiltzeko aukera

berriak irekitzen ari dira. Lehen adibide batzuk baditugu udal mailan, adibidez, hizkuntza kudeaketa planak egitetik, teknikari eta arduradun politikoen artean elkar ekintza bideak eta interbentzio ikerketak egitea edo eta, politikoen hizkuntza lidergoa lantzea.

4) Partaidetza prozesuetan (ingurumena, aurrekontu parte hartzaileak, festak, aisialdia,...) eta elkarteetan (talde ekologista, feminista, minbiziaren kontrako taldea, kooperazioa...), hizkuntza kudeaketa berariaz egin eta euskara hizkuntza komuna izateko bideak irekitzea. Nire iritziz, euskalgintzaren potentzial handia, publiko-xede eta talde berri hauetara jotzea izan daiteke.

4.3 Ekologiaren TEKNIKAK hizkuntzetara ekarriak

Hizkuntzen eta euskararen normalizaziorako erabilgarriak izan daitezkeen ingurumen zuzenbideko babes teknikak aztertzeko, ondorengo taula osatu dut. Ezkerreko zutabean, ingurumena babesteko teknikak daude eta eskuinekoan, hizkuntza babesteko teknikak. Babes teknikak, hiru multzo eta lerrotan sailkatu ditut bi zutabeetan: Kontrol, Plangintza eta Sustapen teknikak. Taulan ikus daitekeenez, teknika hauetako batzuk jada erabiliak dira hizkuntzetarako (* sinboloz adierazia), eta beste batzuk erabilgarriak izan daitezke, agian, etorkizunean.

KONTROL TEKNIKAK (derrigorrezkoak, arautuak, publikoak)	
<ul style="list-style-type: none">• Baimenak: (Aktibitate Lizenziak lortzeko, ingurumen neurriak betetzeko baldintzak .)• Ingurumen-arriskuaren ebaluazioak• ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioak (IIE, IPPC...). Ingurumenaren eragin kaltegarria izan dezaketen politika, plan, proiektu, eta ekintzetan aplikagarria.• Inspezioak eta zigorrak (administratiboak eta penalak) Ingurumen irizpideen betetze mailaren kontrola: Ur eta gas kutsakorren isurketak, hondakinen sailkatzea, neurri zuzentzaileen betetze kontrola, ...). Kode Penal ere bai (ingurumen delituak).	<ul style="list-style-type: none">• Baimenak• Arrisku Linguistikoen Ebaluaketa. Eraginen Linguistikoen Ebaluaketa* (LUH12 jardunaldi hauetan lehen zirriborroa aurkeztua, Galesen dagoeneko aplikagarri)• Inspezioak eta zigorrak Hizkuntza irizpideen betetze mailaren kontrola.

PLANGINTZA TEKNIKAK (Ingurumen/ Jasangarritasun Politikak & Planak)	
<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen/Jasangarritasun Politikak, Planak... (Tokiko Agenda 21k,...) • Naturgune Izendapenak eta Planak (PORN, PRUG,...) • Lurralde Antolamendurako Planak – ingurunearekin harremanetan. (EAE: Artezpideak & LPP, LPS) <ul style="list-style-type: none"> • Hirigintza Planak... • Mugikortasun Plana 	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza/Jasangarritasun Politikak eta Planak * (Aukera legoke, Tokiko Agenda 21etan hizkuntza irizpideak ere txertatzeko. Badago aurrekari bat) • Arnasgune izendapenak eta arnasgune Planak (Ikusi artikulua honetako 4.2.2. atala) • Lurralde Antolamendurako Planak- euskara EAE: Aukerak (gaur egun ez) <ul style="list-style-type: none"> - "ondare kultura" kontzeptuaren egokitzapena: hizkuntza, gizarte kohesiorako giltzarri & -LPP: udalez gaindiko lurzoruen erabilerak zehazterakoan, hizkuntza/ak aintzat hartzea.
SUSTAPEN TEKNIKAK (aukerazkoak, sozio-ekonomikoak, Publikoak eta pribatuak)	
<ul style="list-style-type: none"> • Diru laguntza deialdiak ingurumen arloan <ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen irizpideak Lehiaketa publikoetan • Fiskalitatea. Ingurumenaren aldeko praktikak sustatzea helburu duten ingurumen zergak, tasak eta kanonak. • Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (GEK) • Kalitate eta ingurumen kudeaketa eta ziurtagiriak (ISO14000, EMAS, Ecoscan, Bio zigiluak, Breamm...) • Gizarte Sariak • Ekoauditoriak • Ekoetiketak (Aenor, Bio Europa, Euskoa...) • Ingurumena babesteak garapenean duen inpaktua neurtzeko adierazleak. • Egunen izendatzea: Ingurumenaren eguna, uraren eguna, bioaniztasunaren eguna... <ul style="list-style-type: none"> • ... 	<ul style="list-style-type: none"> • Diru laguntza deialdiak euskararen arloan * • Hizkuntza irizpideak lehiaketa publikoetan * (gaur egun, arazo juridikoak). <ul style="list-style-type: none"> • Fiskalitatea • Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (GEK) * <ul style="list-style-type: none"> • Kalitate eta euskara Ziurtagiriak * (Bai euskarari, Bikain) • Gizarte Sariak* (Argia sariak...) • Hizkuntza auditoriak • Hizkuntzarekin lotutako etiketak *(Euskoa, Sor markak) • Jatorrizko hizkuntza eta kultura babesteak eta erabiltzeak, garapenean duen eragina neurtzeko adierazleak. <ul style="list-style-type: none"> • (Unescoren CDIS) • Egunen izendatzea *: Ama-hizkuntzen nazioarteko eguna, Hizkuntzen Europako eguna, Euskararen eguna...

Hizkuntzetara ekarriak izan diren teknikak aztertuta (*), hiru ondorio nagusi aterako nituzke:

- KONTROL teknikak, derrigorrezkoak direnak, ez dira erabiltzen hizkuntzaren babeserako oraindik.

- PLANGINTZA teknika, euskara politika eta planetan erabiltzen da, baina, jasangarritasun kontzeptuaren baitan ulertzen diren ingurumena, lurralde antolamendu edo garraio planetan, kasu, ez dira euskara eta hizkuntza aniztasuna kontuan hartzen. Tokiko Agenda 21ak aukera ona eskaini dezake bide honetan, ingurumen adierazleez gain, eta adierazle sozialen artean, hizkuntza adierazleak ere sartzeko.
- SUSTAPEN teknikak dira hizkuntzen babeserako gehien erabiltzen direnak, aukerazkoak direnak eta, kasu batzuetan, teknika hauen erabilera juridikoki epaitua eta debekatua izaten ari da.

ONDORIOAK

Esandakoarenak kontuan hartuz, hizkuntza guztien berdintasunetik abiatu-rik, hizkuntza bakoitzaren garapen jasangarria lortzea du helburu hizkuntza-ekologiak.

Hizkuntza eta ekologiaren arteko sakoneko lotura honetatik abiatuta, hizkuntza-ekologiak mundu mailan ematen ari den hizkuntzen galerari erantzuteko, hizkuntza gutxiagotuak, tartean euskara, babesteko politikak eta kudeaketa neurriak hartzea eskatzen du eta, bide honetan, praktika ekologikoak ere iradokitzen ditu.

Hizkuntza-ekologia paradigmak gizarte kohesiorako duen potentziala handia da. Politikoa, kolektiboa eta pertsonala den hizkuntzen afera alderdikierietatik ateratzeko eta begirada holistiko, ekologiko, eta praktikoa batetik norabide konpartituan jorratzeko aukera ematen du.

Artikulu honetan, ingurumen zuzenbideak bere dituen printzipio, kontzeptu eta teknikak hizkuntzetara ekartzeko proposamenak egin dira. Hauetako batzuk dagoeneko bere bidea egin dute, beste batzuk iradoki dira, batzuk baztertu egin beharko dira agian, eta beste asko asmatzeko eta esploratzeko daude oraindik.

Bizitza bera ulertzeko modua da hizkuntza-ekologia, bizitzari zentzua emateko aukera, kalitatez bizitzeko bidea eta eredu jasangarriak asmatu eta eraikitze-ko baliagarria. Izan gaitezen Hizkuntza-ekologistak motibazioz, ezagutzaz eta intuizioz, eta, batez ere, ekinean.●

OHARRAK

1 Beste batzuk: autosufizientzia-printzipioa, "sehaskatik hilobira" printzipioa, hurbiltasun-printzipioa, "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioa, ingurumen eta gizar-terearen kontrako kanpo-efektuak barneratze-ko beharra...

Artikulu honetan, ingurumen zuzenbideak bere dituen printzipio, kontzeptu eta teknikak hizkuntzetara ekartzeko proposamenak egin dira.

Bizitza bera ulertzeko modua da hizkuntza-ekologia, bizitzari zentzua emateko aukera, kalitatez bizitzeko bidea eta eredu jasangarriak asmatu eta eraikitze-ko baliagarria. Izan gaitezen Hizkuntza-ekologistak motibazioz, ezagutzaz eta intuizioz, eta, batez ere, ekinean.

1. <http://www.unesco.org/languages-atlas/>
2. "EUSKARAZKO IKT-AK" mintegia. Bilbo, (2014). Euskararen osasun digitala ona dela ondoioztatu zen eta euskara, interneten erabiltzen den munduko hizkuntzen %5en artean dago. <http://www.euskara.euskadi.eus/albiste/2014/euskarazko-iktak-mintegia/r59-738/eu/>
3. [http://www.ekogunea.net/files/galeria/flash/Ekoliderrak5urte_Interaktiboa%20\(1\).swf](http://www.ekogunea.net/files/galeria/flash/Ekoliderrak5urte_Interaktiboa%20(1).swf)

ERREFERENTZIAK

- Aierdi, X. eta Uranga, B. (Ed.) (2007). *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak*. http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/euskara_immigrazioa.pdf
- Azkarraga, J. (2010). *Iraunkortasunerako euskal transizioaz: herri-ekimenaren desafioak.UEU mintegia. Eibar*. <http://www.ueu.eus/ikasi/udako-ikastaroa/142>
- Azurmendi, M.-J. eta Olaizola, I. (2003). Sustainable Quality of Life: Cultural Diversity, Environmental Law and Building Citizenship. *Medio Ambiente y Comportamiento Humano*, 4 (2), 2003. 127-152. http://mach.webs.ull.es/PDFS/VOL4_2/VOL_4_2_e.pdf
- Azurmendi, M.-J. (2010). Hizkuntza-ekologia eta jasangarritasuna, globalizazioan: Euskarari begira. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 75 (2), 2010. 145-164.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 81 (4), 2011: *Hizkuntza-ekologia euskararen ingurunean*. Artikuluak: B. Uranga, A. Bastardas, J.I. Marko, X. Erize, I. Idiazabal, J.I. Marko eta B. Uranga eta J. Sarasua; mahai-ingurua koord.: B. Uranga.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 86, 2013: *Euskararen framing berriaz* (hizkuntza-ekologiaren baitan kokatuta). I. Martinez de Luna, zenbakiaren zuzendaria eta proposamen-artikulu nagusia; erantzunezko artikuluak: P. Baztarrika, X. Erize, M.-J. Azurmendi eta P. Bilbao.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 90 (1), 2014: *Lurralde-Antolaketa eta Hizkuntza*. Artikuluak: B. Uranga, U. Fernandez de Betoño, K. Telleria, E. Apaolaza, I. Salaberria, P. Bilbao, B. Urkiza eta A. Ensunza.
- BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 91 (2), 2014: *Euskara erabiltzeko planak berritzen. UIDALTOP Soziolinguistika Jardunaldia*. Artikuluak: B. Uranga, I. Martinez de Luna, P. Baztarrika, I. Haro, M. Irizar, K. Ozaita eta J. Ubalde.
- Brundland, G.H. (1991). *Our Common Future*. Oxford: Oxford University Press.
- Díez, P. eta Olaizola, I. (2003). El derecho al medio ambiente adecuado, como derecho humano. In C. San Juan, J. Berenguer, J.A. Corraliza eta I. Olaizola (Ed.) (2003), *Medio Ambiente y Participación*. Bilbo: UPV/EHU. 147-162.
- Haugen, H. (1972). *The Ecology of Languages*. California: Stanford University Press.

- Martinez de Luna, I. (2007). Kultur aniztasuna. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 65, 105-109.
- Odriozola, J.M. (2007). Hizkuntzaren araberako Kultura. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 65, 2007: *Euskal Herriko Kulturak eta Hizkuntza*, 17-24.
- Olaizola, I. (2005). Participación de la sociedad civil para el desarrollo sostenible. *Euskonews & Media* 324 zb. <http://www.euskonews.com/0324zbk/gaia32410es.html#>
- Olaizola, I. eta Alvarez de Eulate, N. (2003). Participación en materia ambiental. In C. San Juan, J. Berenguer, J.A. Corraliza eta I. Olaizola (Ed.) (2003), *Medio Ambiente y Participación*. Bilbo: UPV/EHU. 109-146.
- Sánchez Carrión, J.M. "Txepetx" (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. San Sebastián.
- Sánchez Carrión, J.M. "Txepetx" (1985). *La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas*. Donostia/San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.
- Sarasua, J. (2007). Material gordin bat hizkuntzen ukipenerako. In X. Aierdi eta B. Uranga (Ed.), *Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak. Lan jardunaldiaren inguruko gogoetak*. Bilbo: IKUSPEGI eta Amarauna-UNESCO Etxea. http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/euskara_immigrazioa.pdf
- Sarasua, J. (2013, 2.edi.). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.